

## EGIAKO MERKATARITZA PLANAREN INPLEMENTAZIOAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzataren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Egiako merkataritzaren inguruko KONTROL gMOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko urriaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

2014ko abuztuaren 1ean, Merkataritza eta Turismo sailburuordeak argitaratuko ebazpenaren bidez, Donostiako merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasun arloko estrategia zonalak bultzatzera zuzendutako laguntzen deialdia argitaratu zen.

Donostiako Udalari dagokionez, zuzkidura ekonomikoa 51.750 eurokoa zen. Deialdiaren baitan, Donostiako Udalak egin beharreko esparru-akordioan honako jardura hauek aurreikusi ziren, besteak beste: *Eremu komertzialak definitzeko azterketa. 6.1d) art. Egiarako eta Amara Berrirako eremu komertzialak egituratzeko eta identifikatzeko azterketa.*

2015eko urtarrilean eremuaren diagnostikoa eginda zegoen, baina oraindik ere plangintzarik ez da aurkeztu Egian. Delegatuak orain arte hainbat aitzakia erabili ditu: merkatarien elkarerik ez izatea, mugikortasun arazoak...

Bilerak eta pausoak eman dira, hori ezin dugu ukatu, baina denbora aurrera doa eta plangintzarik, bere neurriekin eta helburuekin, ez da egin.

Batzordean, delegatuak emandako urratsak adierazi eta Donostiako Sustapenetik bideratutako gai-laguntzak (kontratazioa, berrikuntza, ekintzaileak, jardura komertziala) ere mahai gainean jarri zituen. Hainbat programatarako diru laguntzak daude, baina gure ustez, Egiak plangintza bat izateko eragileak eta beharrak baditu. Datorren urtean TAO sistema, bere gune komertzialarekin, martxan jarriko da; Hegia merkatarik elkarrekin ere ekimenak burutzeko prest agertu da; Donostiako Sustapenak auzoaren beharren ezagutza ere badu. Beraz, tresnak baditugu plangintza bat jorrazteko. Udal Gobernuak, baina, ez du honekiko konpromiso zehatzik adierazi.

Hori dela-eta, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### KONTROL MOZIOA

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Egiako merkataritza plana, bere neurri eta helburuekin, inplementa dezala.

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bertako eragileekin landu dezala Egiako merkataritza plana eta udal taldeei aurkez diezagula ekarpenak egiteko aukera izan dezagun.

Donostian, 2017ko urriaren 19an

Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**